


# Santu Guztien Eguna



## ITZALEKOAK ARGITARA

Azaroaren leian, asteartean, lorez beteko dira eskualdeko hilerriak Santu Guztien Egunaren harira. Heriotzaz, errituez eta hilerrietako bitxikeriez hitz egin diote HITZARI hainbat adituk.



# HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK TOKIKO WEBGUNEETAN

B

**BALEIKE.EUS:**  
943-86 15 45  
baleike@ukt.eus

K

**KARKARA.EUS:**  
943-83 15 27  
karkara@ukt.eus

M

**MAXIXATZEN.EUS:**  
943-85 36 17  
erredakzioa@maxixatzen.eus

U

**UZTARRIA.EUS:**  
943-15 03 58  
uztarrria@ukt.eus

Z

**ZARAUZKOHITZA.EUS:**  
943-89 00 17  
zarautz@ukt.eus



**Puntuka**  
Saioa Garmendia

## Heriotza da bizitzeagatik ordaindu behar dugun bidesaria

**H**eriotza (iraungipena) izaki bizidun baten prozesu homeostatikoa iraungitzearen eta, ondorioz, bizitzaren amaieraren ondorio da. Kausa naturalek (zahartzarora, gaixotasuna) edo induzituek (suizidioa, hilketa, eutanasia, istripua) eragin dezakete. Denok bizi behar dugun prozesu individuala da. Bizitza egoera, eronka, poz eta galera multzo bat da; prozesu dinamiko bat da, eta etengabe egokitu eta doitu behar da mantendu ahal izateko.

Heriotza gizaki oren halabeharrezko patua da, izaki bizidun guztien bizitzako etapa bat, bizi-prozesuaren berezko horizontea osatzen duena. Heriotza bizitzaren aurreikusitako gailurra da, baina ez dago argi noiz eta nola gertatu behar duen.

Antzinako gizarteetan heriotza bizitzaren zati integral gisa onartzen zuten, modu naturalean onartzen zen, heriotza zeremonia publiko bat zen, gizartea heriotzarekin batera bizi zen eta egunerokotasunaren parte zen, pertsonak familian hiltzen zirenean, eta bertan senideak zeuden, haurrak barne, haurtzaroko heriotza ohikoa zen eta familia askok txikitzen galtzen zuten kideren bat,

hiltzorian zegoenari laguntza ematen zitzaion bere agonian.

XVIII. mendearen amaieratik eta XIX. mendearen hasieratik aurrera, heriotzak irudikapena galdu zuen, eta harekiko jarrera aldatu egin zen, beldurra ematen hasi zitzaigun.

XX. mendearen erdialdetik aurrera, heriotzaren instituzionalizazio prozesu hori sakondu egin zen. Heriotzaren lekua ospitaleetara joan zen, pertsonak ospitalean hiltzen ziren, askotan bakarrik. Hiltzeko prozesua, erritualak barne, profesionaliatu egin zen bere funtzioan, bai hildakoari dagokionez, bai bizirik atera zirenei dagokienez.

Gizarte postindustrialietan bere zentzua aldatu egiten da eta heriotza ezkutatu egiten da, zaila da onartzea, baztertu egiten da eta ezkututzen saiatzen da, tabu bat da; hileta-zeremoniak eta doluak diskretuagoak eta intimoagoak bihurtzen dira. Gaur egungo gizarteak heriotza eta horrekin zerikusia duen guztia ukatzen du, ikuspuntu negatibo batetik ikusteko joera du eta hiltzeko unea ziurgabetasun eta desolazio une gisa hartzen da, kosta ahala kosta saihestu nahi dena.

Gure inkontzientek ezin du geure heriotza hauteman,

**Heriotzarako prest egotea gure bizitzako gatazkak konpontzeko eta balioak zalantzan jartzeko modu bat da**

**Hilkorrak garela jabetzeak bizitza ikuspegi emankor batetik ikusteko aukera ematen digu**

eta gure hilezintasunean sinetsarazten digu, baina, hala ere, besteen heriotza hauteman dezakegu.

Denok dakigu hilko garela, hilkorrak garela. Baina, denbora gehienez, hilezkorrek bagina bezala jokatzeko dugu. Denbora galtzen dugu, gauza garrantzitsuak gerorako atzeratzen ditugu.

Heriotzaren esperientzia zeharka baino ez dugu bizitzen, baina hurbileko

norba it hiltzen denean edo, hurbilekoa ez ezik, maite dugun hori ere bai, hiltzen denarekin harremanetan daudenei ere eragiten die, dimentsio sozial eta kulturala agerian utziz. Horregatik, heriotzaren aurrean pertsonak hartzen dituzten jarrerak eta portaerak ezaugarri eta zirkunstanzia individualen ondorio dira, alde batetik, eta gizartean nagusi den heriotzaren kontzeptu eta zentzuaren ondorio, bestetik.

Heriotzaren esperientziak bizitzeko modu biziago batera eramaten gaitu. Heriotzaren gertakariari aurre egiten diogunean, horrek gure balioak, bizitza ikusteko dugun modua, gure sinesmenak etab. zalantzan jartzen ditu, eta autoanalisi une horretara eramaten gaitu, honako galderak eginez: zer bizitza dugu?

Zein da gure bizitzaren egoera, gure harremanena, gure loturena? Egin al dugu nahi izan duguna, edo atzeratu egin dugu? Denbora benetan nahi duguna eginez aprobetxatu al dugu? Horrela jarraitu nahi dugu izaten?

Heriotzarako prest egotea gure bizitzako gatazkak konpontzeko eta gure eguneroko bizitzaren oinarri izan diren balioak zalantzan jartzeko modu bat da. Benetan hilkorrek garela jabetzeak, gure bizitza ikuspegi emankor batetik ikusteko aukera ematen digu, benetan nahi izan duguna egin dugun ala ez aztertzeko. Gure beldurren aurrean jartzen gaitu, era berean; konpondu gabeko gaiak, pertsona batzuekin amaitu gabeko egoerak eta, batez ere, garrantzi handia eman diegun edo kezkatuta, larrituta, tentsioz edo tristuraz menderatu edo mantendu gaituzten gauzak zirkunstanzialak direla konturatuzko aukera ematen digu.

Egunero gure bizitzako azken eguna balitz bezala bizi beharko genuke, horrek bizitza osotasun eta intentsitate handiagoz bizitzera eramango gintuzkeelako, orain eta hemen. Gogoratu, bizitza ez dela neurrigabe hedatzen, dena edozein unetan ken dakigukeela.

# «Zarauzko Torreoia toki paregabea litzateke hileta zibilak egiteko»

IÑAKI PEÑA • Zarautz Herri Zaintzailea taldeko kidea

Heriotzaz eta doluaz lanketa egiten aritu dira azken urteetan Zarautz Herri Zaintzailea taldeko kideak, eta urrats bat gehiago emanez, hileta zibiletan laguntza ematen hasiko dira hala behar duten familiei.

Zarautz Herri Zaintzailea taldea 2018an hasi zen heriotzaren, doluaren eta zaintzaren inguruko pedagogia egiten. Death Cafe saioak antolatzen hasi ziren, eta gaur egun doluarekin eta zaintza aringarriekin lotutako hitzaldiak, saioak eta halakoak antolatzen dituzte. Orain, hileta zibilak prestatzen lagundu nahi diete zarautzarrak eta ingurukoak. Iñaki Peña mediku eta taldeko kideak azaldu ditu proiektuaren xehetasunak.

**Heriotzaz eta doluaz lanketa handia ari zarete egiten. Orain, hileta zibilean arloari ekin diozue; agurraren umeari garrantzia handia ematen diozuelako?**

Duela urte batzuk hasi ginen pentsatzen gai honetan ere lagundu behar genuela. Oso esparru zabalak eta berriak da, eta beraz, dena dago egiteko. Pertsona batzuk ari dira proiektuak prestatzen, baina gauzatu, gutxi gauzatu da. Erri-tuak oso inportanteak dira, bai, esparru erlijiosoan egin dira historikoki oraintxe arte, eta horrela jarraitzen du izaten gizartearen zati batentzat, baina beste batzuei ez die balio. Momentu honetan noraezean gaudela esango nuke: ez bada elizan, ez dakigu zer egin. **Bi gauzak ere egin daitezke, ezta?**

Bai, eta uste dut jende askok egiten duela.

**Errituen garrantzia azpimarratu duzu.**

Bai. Eta, heriotzaren inguruko errituek, zehazki, funtzio bat baino gehiago dutela uste dut: batetik, balio du ohartzeko heriotza benetakoa dela, zeren batzuetan, doluaren shock egoeran, ez gara konturatzen. Batzuek uste dute

**«Errituekin inguruko bera sentitzen da eta ohartzeko gara heriotza benetakoa dela; doluaren lehen fasea da»**

hiletako egunak pasatzean dena amaitzen dela, dolua hori bakarrik balitz bezala. Baina ez. Agurraren lehenengo urratsa da, eta horregatik, inportantea da. Beste funtzio bat da jendearen bera sentitzea: lagunak, familia, komunitatea, herria... sartzen dira hor. Alde horretatik, elizan egiten denak balio handia du, espazio handiak direlako.


**Zarutuz badaude hileta zibilak egiteko espazioak?**

Bai. Batetik, Memora beilatokiak eskaintzen du areto bat. Bestetik, Zarauzko Udalak ere baditu izendatuta horretarako tokiak: Villa

Munda da bat, eta Etxezabala, bestea. 2009ko araudia dute, eta hor jartzen du denbora muga baterako alokatzen dutela, eta eskera aurrez egin behar dela udal-txean, zuzenean alkatetzara joz. Begiratzen aritu naiz ea beste herrietan ere badagoen antzeko araudirik, eta toki askotan jada oso zehaztuta dituzte tokiak, ordu mugak, gorpua edo errautsak sar daitezkeen ala ez... Guretzat, dena den, herrian badago beste toki oso apropos bat halako gauzarako: Torreoia. Sinboliko indarra du, sekulako paisaiaz goza daiteke bertatik, eta leku lasaia da.

**Hileta zibil batean, zertan lagunduko zenukete, zehazki?**

Gaur egun, gaixotasunen bat daukanak eta hil aurretik denbora duenak oso zehaztuta uzten du hiltzen denean nolako agurra nahi duen, edo bere familiak ere denbora izaten du guztia prestatzeko. Modu pribatuan, familia asko ari dira egiten aspalditik halako zeremoniak. Baina heriotza bat-batekoa denean edo familia emozionalki ez dagoenean ondo, gutxieneko gidaritzara behar izaten da. Gehienek zerbait umea nahi izaten dute, sermoi luzerik gabekoa, ahalik pertsonalizatuena.



ONINTZA LETE ARRIETA

Musika da halako zeremonietako ardatzetako bat, eta beti egon ohi da testu, poema edo bertsoaren bat. Liturgiaburu edo elizkizun-buru papera egitea litzateke gure egitekoa; azken batean, apaiz edo moja laikoan lana egitea.

**Halako laguntza nahi lukeen familiarik balego, zuekin harremanetan jar daitezke jada?**

Bai. Zarautzarrak izan edo inguruko herrietakoak, lasai jar daitezke gurekin harremanetan [zarautzherrizaintzailea@gmail.com](mailto:zarautzherrizaintzailea@gmail.com) helbidera idatzita.

**Hileta zibiletan zer paper dute familiakoek eta lagunak?**

Nik uste dut elizan baino errazago animatuko lirakeela parte hartzera, eta inportantea dela emozioak libreaki askatu ahal izateko ere: tristurak badu tokia, noski, baina baita esker onak eta umore-

ak ere. Pertsona hori ohoratzeko aukera ematen du. Gainera, hileta zibilak ez dauka izan beharrik pertsona hil eta hurrengo egunean; aste batzuetara izan daiteke, gertukoak lasaigo daudenean.

**Eta umeek zer toki dute agurretan?**

Oro har, 6 urteko ume batek ondo ulertzen du gertatzen ari dena, eta eraman egin behar genuke bai beilatokira, bai elizara edo antolatzen den bestelako agurrera. Eta txikiagoa izanda ere, umeak eskatzen badu egotea, egon egin behar du. Errespetatu egin behar da. Alderantziz, nahiago badu ez egotea, hori ere errespetatu egin behar da. Orain arte ez gara ari ondo [gizartea], umeak babesteko asmoz heriotza bera ukatzen ari garrelako eta umeak infantilizatzen ditugulako. Akatsa da hori.



## Santu Guztien Eguna

Aurten Kimubaten soilik egingo ditugu eskaerak, zentroen prestaketak, lore-sortak eta abar.

EGIN ZURE ENKARGUA: [garden@kimubat.eus](mailto:garden@kimubat.eus) | 697 250 292





Bi herritar Azkoitiko hilerriaren sarrerako eskailerak igotzen. KRIS FERNANDEZ

*Herritar gehienak urtean behin edo birritan joango dira kanposantura, lagun edo senitartekoren bati loreak jartzera nagusiki. Gutxi ohartuko dira hilerrietan dauden elementuez: Azkoitikoiei buruz pista eman ditu Juan Bautista Mendizabalek.*

# Hilerriaren erraietan

**H**ilerri gehienak bezala, leku pribilegiatua dago Azkoitiko hilerria ere: Izarraitzen magalean dago, Baldatxo baserriaren parean. Beraz, ikuspegi ederrak ditu, alde batera, herri osoa menderatzen duelako, eta, bestera, Izarraitzera begira dagoelako. Baina, horrez gain, hilerri guztiak bezala, Azkoitikoak ere baditu herritar gutxi ezagutzen dituzten hainbat bitxikeria, eta horiek azaldu ditu Juan Bautista Mendizabal historialari eta gida azkoitiarrak. Egunotan herritar asko joango da bere herriko hilerria, eta momentu egokia izan daiteke toki horri beste begi batzuekin begiratzeko. Pista batzuk eman ditu Mendizabalek.

Aurkitutako dokumentuen arabera, 1809an egin zuten Azkoitian gaur egun hilerria dagoen muinoan aurreneko lurperatzea –ordura arte parrokian egiten zituzten–, baina eremu horrek aurretik ere bazuen historia, han egon baitzen aurrenetako parrokia: Baldako Santa Maria. Gerora, ordea, herrira eraman zuten parrokia, izen berriarekin: Ama Birjinaren Jasokundearen Parrokia.

Gaur egun ezabatuta badago ere, hilerria joaten ziren bisitariek hildakoen mezua zuten: *Laster esango dute zuetaz gaur zuek gutaz esaten duzuen: 'Hil ziren'*. Bat nahikoa ez, eta bada antzeko bigarren mezu ezkutua Azkoitiko hilerrian. Gilbert eta Mendizabalen hilarriak du idatzita: *Zure bezalako nintzen, ni bezalako izango zara*. Hilarri berak, baditu berezitasun gehiago; izan ere, arkitonikoki ere oso berezia da; neogotiko estilokoa, hain zuzen.

Estilo arkitonikoari dago-kionez, hainbat estilo nahasten dira (6. orrian jarraitzen du)




Catalana  
Occidente  
Seguros

**BELOKI**  
Aseguruak eta finantzak

Zure Heriotzak arduratzen zaitu?  
Zure familiari pisu hori kentzen lagunduko diogu  
(Hileta, Ehorzketa, Errausketa, Tramiteak, etab.)  
Zatoz gure bulegora eta informa zaitez

Xabier Beloki Zulaika  
Aseguru eta finantzetako aholkularia

Bizkaia kalea 25 behea, Zarautz · 943-83 50 31  
www.seguoscatalanaoccidente.com/agente/zarautz/xabierbeloki  
644 37 42 70 belokiaseguruak @eust33



# CARMONA

FUNERARIA EHORZTETXEA

CARMONA EHORZTETXEAK **50 URTE** BAINO GEHIAGO DARAMATZA UROLA BAILARAN MOMENTU GOGORRETAN ZERBITZUA EMATEN, GERTUKO TRATUA ETA PERTSONALIZATUA ESKAINIZ.

ETENGABEKO **24 ORDUKO ZERBITZUA DUGU**,  
AZPEITIKO ETA AZKOITIKO BEILATOKIETAN.



**Carmona Ehorztetxea** Pablo VI, 7 - AZPEITIA - Tel.: 943-15 15 14 - 943-15 09 74

**Beilatokia Azpeitian** Ibai-Ondo Kalea, z/g AZPEITIA - Tel.: 943-81 60 42

**Beilatokia Azkoitian** Juin Industrialdea z/g - AZKOITIA - Tel.: 943-85 20 70

**Zerbitzu iraunkorra** Tel.: 943-15 15 14 - 943-15 09 74

[www.funerariacarmona.com](http://www.funerariacarmona.com)

(4. orritik dator) hilerrian; estilo gotikoaz gain, erromanikoaren eta exotikoaren ezaugarriak ere begi bistakoak dira beste zenbait elementutan. Hilerriaren aurretik, Baldako Santa Maria eliza egon zen bertan, eta haren arrastoak dira, esaterako, hilerriaren sarreratik gertu dagoen arku erromanikoa, 1200. urte ingurukoa, eta aurrerago dagoen ermita.

Panteoiei buruzko azalpenak ere eman ditu Mendizabalek. Panteoi batek, adibidez, burdina eta egurra uzartzeko ditu, eta neoklasikoak ere badu presentzia Azkoitiko hilerrian; 1832. urte inguruko panteoi batean ikus daiteke, Mariano Jose Laskurainek diseinatu zuenean, hain zuzen. Harenak dira Azkoitiko Barrieta eta Azpeitiko garbitokiko iturriak.

Balio artistiko gutxiago duten baina ikusgarritasun handiko panteoiak ere badaude. Urtokeona, adibidez; anbulatorioko jauregi zaharreko familiarena. «Ukitu erromantikoa eta malenkoniatsua du, eta, gainera, atzeko ikuspegi horrekin, hilerriko ikusgarriena eta ederrena da», iritzi dio Mendizabalek. Gainera, familia osoa Azkoititik kanpo bizi den arren, herriko hilerrian hilobiratzeko dituztela esan du historialariak. Altuna Portu familiako panteoia ere berezia da, Carrarako marmolez egindakoa, kolore zuria eta grisa uztertuz.

#### Eredu batzuk aukeran

Estilo ugariko hilarriak jarrita hilerri kaotikoa edota beldurgarria izatera iritsi zitekeela pentsatu zuen Azkoitiko Udalak orain urte batzuk, eta horregatik, hilarri eredu jakin batzuk jarri zituzten eredu bezala. «Hala, lauzpabost eredu ezarri ziren, eta horien artean bat aukeratu behar izaten dute herritarrek. Gainera, ateo edo ez fededunentzat ere badira gurutzerik gabeko hilarriak», azaldu du Mendizabalek.




Mendizabalentzat, Azkoitiko hilerriko pieza ederrena. KRIS FERNANDEZ

Beste hainbat aldaketa ere izan ditu hilerriak. Esaterako, handituz joan da eremua; egun, hilerriaren erdian, belardian, norabide berean dauden harrizko hilarrien azpian lurperatzen dira gorpuak, eta askotariko mausoleoek zein panteoiek inguratzen dituzte horiek.

Batean zein bestean, badira pertsonaia ezagunak lur hartuta, hala nola, Raimundo Alberdi arkitektoa, Bartzelonako alkate izandako Gillermo Azkoitia eta Juan Ignazio Uria politikariak,

edota Mariano Juaristi *Atano III.a* pilotaria. Azkoitiko apaiz izandako guztiek ere badute beraien panteoia, eta baita 1936ko Gerran bi bandoetan hildako azkoitiarrek ere.

Azken urteetan egon da berrikuntza gehiago: hilerrian eremu berria jarri dute, horma-hilobien gunea ere bai, eta krematorioa ere sortu dute. Azken zerbitzu horren eskaera asko igo da, bertakoak ez ezik, inguruko hainbat herrieta-koak ere errausten dituztelako bertan.



Goian, neogotiko estiloa panteoia. Behean, beste panteoi bat. K.F.

#### Eskualdeko hilerriak

**Aia.** Herriko hilerriaz gain, Urdaneta auzoan eta Laurgainen ere badira hilerriak. Garai batean Altolan ere bazegoen, baina azken mende erdian ez dute inor lurperatu han; ez dago berri-tuta.

**Azkoitia.** Hiru hilerri daude: herrikoa, Aizpurutxokoa eta Elostukoa; azken hori Bergarari dago-kio.

**Azpeitia.** Eskualdeko hilerri gehien ditu, lau guztira: herrikoaz gain, izan ere, hilerriak daude

Urrestillan, Nuarben, Matxinbentan eta Aratzerrekan.

**Aizarnazabal, Beizama, Errezil, Getaria, Orio eta Zarautz.** Herriko hilerriak bakarrak dituzte Urola Kosta eskualdeko bost herri horietan. Eskualdeko herri handienak ere hilerri bakarra dauka; hots, Zarautzek.

**Zestoa.** Hiru hilerri zenbatu daitezke Zestoa: herrikoa, Arroagoikoa eta Aizarnakoa.

**Zumaia.** Zumaian, azkenik, bi hilerri dituzte: herrikoa, eta Oikia auzokoa.



## zainBIZI elkarte

zaintza Bizitzan

**ZUEN ONDOAN GAUDE, EZ ZAUDETE BAKARRIK**

Bizitzako prozesu desberdinetarako bidelagun zerbitzua eskaintzen dugu (ondoez fisiko edo emozionaletan, heriotzetan, banaketetan, bizitzako aldaketetan, etab.), tresna eta teknika desberdinen bitartez.

- Dolu terapeuta zerbitzua - Eider Otxoaren eskutik
- Berrorekatze energetikoak / Irakurketa energetikoak
- 'Gorputz jarrera energetikoaren berreziketa'
- 'Vivir un buen morir y el arte de acompañar' formazioaren 2023-2024 edizioarako izen ematea zabalik dago

Norberak bere ongizatea gestionatzeko baliabideak ere eskaintzen ditugu: ikastaroak, hitzaldiak, topaketak, eta abarren bidez.

Kontsultatu gure agenda: [www.zainbizieltarte.com](http://www.zainbizieltarte.com) webgunean

Antxiola kalea 15 behe, Orio · [www.zainbizieltarte.com](http://www.zainbizieltarte.com) · 613 02 36 18 ·  



Goian, ikur erlijiosorik gabeko hilarria. Denera, lauzpabost estiloko hiliarriak daude aukeran Azkoitian. Behean, hilerriaren sarrera. K.F.



Azkoitiko hilerriko krematorioa. Zerbitzuaren eskaera handitu egin da azken urteetan. K.F.



# Seguros Bilbao

**BIZIA aseguru**  
zure AUTOAK baino balio gehiago baitu

**ESTIBALIZ UNZUETA**

Zigordia, 30 - Zarautz

943-04 74 86

[eunzueta@segurosbilbao.com](mailto:eunzueta@segurosbilbao.com)



Hileta Zerbitzuak



· 943 89 49 37 · 24h · 943 42 21 29 ·

Zarautz Hileta Zerbitzuak, Memora eta Vascongada ehorzketa taldeen bat-egitea, aurrerapen nabarmena izango da ehorzketa sektorean, Zarautzen nahiz Euskal Herrian.

Bokazio eta ardura handiko 1.500 pertsonako lan talde bat dugu orain, zure alboan egoteko eta zerbitzu onena eskaintzeko. Maite duzun horri merezi duen agurra ematen lagunduko dizugu.

Instalazio berri, moderno, eroso eta argitsuak ditugu, eskualdeko lehen errausketa-labearekin. Zerbitzu guztiak, toki bakarrean izan ditzazun.

Gure beilatoki berrian, jada ezagutzen dituzun profesionalak izango dituzu. Betiko konfiantza eta gertutasuna bermatzeko.

Behar gaituzunean Zarautz Memora beilatokian aurkituko gaituzu, Abendañon.

Bokazioa, esperientzia eta sentiberatasuna oinarri dituen arreta, betiko esentziarekin.

· Urteta bidea 2 · 20800 Zarautz · 24 zure zerbitzura · 943 89 49 37 · 943 42 21 29 ·